



Fito Rodriguez, diputazioaren egoitzan, eta atzean, Jone Forkada, Txillardegiren alarguna. (ON URBE / ARGIAZKI-PRESS)

Jose Luis Alvarez Enparantza 'Txillardegi'-ren pentsamendua eta literatur lana ezagutzeko ibilbidea egin dute Donostian, 'Leturiaren egunkari ezkutuaren' egilearentzat garrantzitsuak izan ziren txokoetan barrena.

# Txillardegiren bideak

Mikel Lizarralde Donostia

**T**xillardegi idazlea. Txillardegi euskaltzalea. Txillardegi politikaria. Txillardegi pentsalaria... bakarria izanda ere, hamaika Txillardegi biltzen zituen bere baitan Jose Luis Alvarez Enparantzak (Donostia, 1929-2012). Txillardegi horiek guztiak ezagutzeko eta Jose Luis Alvarez Enparantzak Donostiarekin izan zuen harreman estuaren berri izateko, literatur ibilbidea egin zuten atzo Gipuzkoako hiriburuan, Fito Rodriguez idazle eta iterrariak gidatuta. Kontxako pasealekutuak diputazioaren egoitzara; handik Viktoria Eugenia antzokira; ondoren, Arrano Beltza elkartera, eta Lasala plazan amaitu. Txillardegi polidetrikoa ezagutzeko ibilbide literarioa bezain sentimentala.

Alderdi Eder ondoan, itsasoari begira, ekarri zuen gogora Rodriguezek Txillardegi pentsalari eta idazlea. Nola «idazle urbano, laiko eta iraultzailez» zeukan bere burua. Eta nola horrek idazle zaharragoen ezin ulertua eragiten zuten. Existenzialismoari lotua aurrena, estrukturalismoari ondoren, bere lanaren bidez erakusten du Txillardegik gizakiaren iziera «hautu egiteko» definitzen duela. Eta berak hautua egin zuen, «Urbanoa, Peru Abarkaren kontrakoa; laikoa, Nemesio Etxanizek ulertu ezin zuena; eta iraultzailea, kolonialismoari aurre egiteko».

Rodriguez-en entzuleen artean, adin guztietako lagunak. Baina batez ere emakumeak. Eta haien

artean, Txillardegiren emazte Jone Forkada, seme-alabak eta baita biloba bat ere.

Bigarren geltokia, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza, Gipuzkoako plazan. Eta han, zehazki, Urkixo gela. Bertan euskara eskolak eman zituen Txillardegik, eta hango giltzarekin zer egin izan zuen kezkatuko bat atxilotu zutenean. Euskara irakasle izan zen, euskara ikasle izan ondoren. Eta euskara batuaren alde modu aktiboan lan egin zuen, artean euskalkikeria nagusi zenean. Rodriguezek gogora ekarri zuenez, 1956an Euskaltzaindiari igorritako *Karta iduna* da horren erakusle agerikoena. «Euskara batuaren aldarrikapena egiten zuen han, baita forma aldetik ere, euskara batua erabiliz». Euskara garbiaren aldean, euskara bizia nahiago zuen Txillardegik, eta, horregatik, 1960an Jean Haritzelar Euskaltzaindian sartzeko ekitaldian irakurritako hiru hitzaldiak zubereraz, baxenafarreraz eta gipuzkeraz aditu ondoren, «gu bagoaz» adierazi zuten Txillardegik berak eta Piarres Xarritonek.

2012ko urtarrilaren 14an hil zen, Viktoria Eugenia antzokian omendu zuten Txillardegi. Bi aldiz omendu ere. Batetik, omenaldi politikoa egin zioten, eta, bestetik, literarioa. Ramon Saizarbitoria, Joanmari Irigoien, Koldo Izagirre, Arantxa Urretabizkaia, Rafa Egiguren... donostiar idazleek parte hartu zuten ekitaldi hartan, eta atzo ere geltoki izan zuten Rodriguezek gidatutako lagunek.


Handik, Parte Zaharrena. Arrano Beltza elkartera. Hainbat egi-

tasmosozial eta kulturalen babesleku ezezik, Euskal Herrian Euskaraz-en habia izan den lekura. Hizkuntza eta politika elkarri lotuta daudela gogoratzeko. Glotopolitikaren garrantzia gogoratzeko, hizkuntzak testuinguru soziopolitikoarekin lotura zuzena duela.

Eta amaiera, Parte Zaharrean bertan, Lasala plazan. Eta han dagoen lehoiari begira, Joxe Austín Arrietak Beñan argitaratutako artikulua bat irakurri zuten. Txoko horri Txillardegi plaza deitzeko eskatzen zuten testua.

Ibilbidea modu sentikorrean amaitu zen. Nerea Txapartegi Donostiako Udateko Kultura eta Euskara ordezkariak Jone Forkadari emandako lore sortarekin.

## Irudia Durango



## MUSIKARIEN BOSTEKOA

Borja Estankonak eta Inoren Ero Ni taldeek kontzertua eman zuten ostiralean Durangoko Plateruena kafe antzokian (Bizkaia). Lehenik, Estankona aritu zen oholtza gainean, bere gitarrekin, eta Inoren Ero Ni taldeko kideak atera ziren ondoren. **BERRIAREN** hamargarren urteurrenaren kanpainari bostekoa eskaini zioten guzkiek. Halaber, antzezleak ere izan ziren atzo Izpuran (Nafarroa Beherea), *Zertarako hegoak* lana eskaintzen. (MARIKOL RAMIREZ / ARGIAZKI-PRESS)

## Laburrak

### Moneori buruzko atzera begirakoa Coruñan

**ARKITEKTURA** Orain arte egin zaion atzera begirakorik handiena egingo diote Coruñan (Galizia) Rafael Moneo arkitekto nafarrari. Urriari zabalduko dute erakusketak, eta 1961etik 2013rako artxiboko materiala bilduko du, eta sortzailearen 46 proiektu hartuko ditu kontuan.

### Szyborskaren eleberririk bat eman dute argitaratu

**LITERATURA** Poesia idatzi zuten Wislawa Szyborska idazle poloniarrek, eta poeta izateagatik jaso zuen literatura Nobel saria, 1996an. Haren nobela argitaragabe bat kaleratu dute orain, ordea, egilea hil eta urtebetera. Idazlearen idazkari- Michael Rusinek-ek aurkitu zuten lana, haren idazkien artean. Eta, haren hitzetan, hasierako Agatha Christieren antza duen suspense lan bat da Szyborskak ikasle garaian idatzia.

## BERRIAk

### Euskadiko Filmategiaren 35. Urteurrena



La Morte Rouge eta El espíritu de la colmena filmetara gonbidatzen zaitu

Maiatzaren 13an, 20:00etan

SARTU

www.berria.com aukeratu, eta jaso sarrera DOAN!